



ZARAUZKO UDALA

## ZARAUZKO UDAL MERKATUAN HUTSIK DAUDEN SALMENTA-POSTU FINKO EDO ITXIAK ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA-AGIRIAK

### Gaia

Zarauzko Udal Merkaturia arautzeko Ordenantzari hasierako onespina eman zion Udalbatzarrak 2014ko azaroaren 26an egindako osoko bilkuran, eta 2015eko otsailaren 13an indarrean sartu zen (2015eko urtarrilaren 26ko GAO, 15. zk). Ordenantza horren 10. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, Zarauzko Udal Merkaturian hutsik dauden bi salmenta-postu (3. eta 12. zenbakiak) emateko lehiaketaren deia egiten da.

Emakida edo baimen administratiboaren izaera edukiko du salmenta-postuen esleipenak, eta titularrek ez dute jabetza lortuko, baizik eta okupazioko eskubide erreal bat.

### Hutsik dauden salmenta-postuak

3 eta 12 zenbakidunak.

### Salmenta-postuen erabilera

Eskaintzan proposatu beharko da, Udal Ordenantzaren 8. artikuluan aurreikusita daudenetakoen artean.

### Lizitazio-mota

1.000,00 €

### Emakidaren epea

Salmenta-postua erabiltzeko emakidaren epea 2034ko otsailaren 27ra artekoa izango da, ematen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, edo lehenagotik merkatuaren itxiera ofizialki aitortua izanez gero, emakida amaitutzat joko da automatikoki; eta salmenta-postua Udalari itzuliko zaio, kontzesiodunak inolako kalte-ordainik jaso gabe.

### Behin betiko bermea

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako eginbeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du, guztira, 500 €.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko kontratuenak, 108.1 artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan jarri ahalko da berme hori.

Bermea dirutan jartzen bada, zenbatekoa Kutxabanken sartuko da ES45 2095 5076 41 1060000246 zenbakiko kontu korrontean, edo Laboral Kutxaren ES86 3035 0029 62 0290900002 kontuan, eta abonua agiriaren kopia bat eramango da Diruzaintzara. Horrekin batera kontu korrante baten zenbakia ere aurkeztuko da, bermea itzultzean dirua bertan sartzeko.



## ZARAUZKO UDALA

Bermea, 9/2017 Legearen 111 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz itzuliko da, emakida-epea bukatutakoan eta esleipendunak bere obligazioak bete ondoren.

### **Salmenta-postuaren titulartasuna**

Jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira emakidaren titular.

Honakoek ezingo dute titular izan:

- Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak -Sektore Publikoko Kontratuenak- kontratatzeke jasota dituen debekuetan sartutako pertsonak.
- Ordenantzan eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenek.
- Produktuen salmentan iruzur arau-haustek behin eta berriz egin dituztenek, baldin eta azken zehapena iragarkia egin aurretiko urtean jarri izan bazaio.

### **Eskaintzen aurkezpena eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Lizitazio honen espedientea Udal honetako Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) aztertu ahal izango da, 08:00etatik 14:30etara, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Baldintza-agiri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik 15 egun baliodunen epean, interesdunek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte, itxita, udaletxeko Erregistroan. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "ZARAUZKO UDAL MERKATUAN HUTSIK DAGOEN SALMENTA-POSTU FINKO EDO ITXIA ESLEITZEKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak jarriko dira, zeren izatez izenpetzen duen zehaztuta. Bi kartazalak izenpetuta egongo dira.

"A" kartazalaren azpтитulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko dokumentuak:

- a) NA-ren nahiz Sozietateari dagokion eskrituraren fotokopia.
- b) Erantzukizunpeko berariazko aitortpena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Bertan espresuki adieraziko da kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko (II. eranskina).
- c) Zinpeko aitortpena: adierazteko ez dela Zarauzko merkatuko salmenta-postu finko, itxi edo postu irekiren baten titular, eta ez duela parte hartzen inolako sozietate titularretan (III. eranskina).

"B" kartazalaren azpтитulua "DIRU-PROPOSAMENA ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK" izango da. Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko dokumentuak:

- a) Lehiaketan parte hartzeko proposamena, I. eranskin gisa dagoen ereduaren arabera.



## ZARAUZKO UDALA

### Esleitzeko irizpideak.

Salmentarako produktuak jakiak izan behar dute.

Lehiaketa honen xede diren salmenta-postuak esleitzeko, ondoko irizpideak hartuko dira oinarritzat, gehienez 100 punturaino:

- Eskaintza ekonomikoa: 40 puntu
- Saltzekoak diren produktuen interesa: 60 puntu

PRODUKTUEN INTERESA (60 puntu):	Puntuak
Produktuaren % 60 baino gehiago freskoa bada.	15
Produktuaren jatorria: produktuaren % 60 baino gehiago eskualdekoa bada (Urola-kosta)	30
Produktuaren kalitatea: erakunde ofizial batek egiaztatutako kalitate-erregistroa badauka %30ak baino gehiagok.	15

Esleipenak modu mailakatuan egingo dira. Puntuaziorik altuena lortzen duen eskaintzak aukeratuko du salmenta-postu finkoa lehenik, eta horrela hurrenez hurren. Puntuetan berdinketa gertatzen bada, zozketa bat egingo da salmenta-postua zein hurrenkeratan aukeratuko den zehazteko.

### Kontratazio-mahaia

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, mahaiburuak kontratazio-mahaia eratuko du. Agiri hauetan ezarritako irizpideen arabera aurkeztu izandako proposamenak aztertzea izango du helburu kontratazio-mahaia.

Eskaintzak jendaurrean zein egun eta ordutan irekiko diren jakinaraziko da. Epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa kalifikatuko du kontratazio-mahaia; eta dokumentu horietan akatsik agertuz gero, hiru egun balioduneko epea emango dio lizitatzailari, akatsa zuzen dezan.

Gero, eskatzea egoki iruditzen zaizkion txosten teknikoak aurrez egin ondoren, kontratazio-mahaia kontratua esleitzeko proposamena (edo esleitu gabe uztekoa) aurkeztuko dio erabakia hartu behar duen kontratazio-organoari.

Kontratazio-mahaia eskubidea izango du Zarauzko Udal Merkatuaren jarduerarekin bateraezinak iruditzen zaizkion proposamenak baztertze.

### Esleipenaren ondoren aurkeztu beharreko dokumentazioa

Lehiaketa egin ondoren, salmenta-postuaren emakidarako proposatua izan denak ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta hamabost (15) eguneko epean:

- a) Jarduera ekonomikoen gaineko Zergan Alta eman izanaren edo eskatu izanaren frogagiria.
- b) Esleipenaren prezioaren eta behin betiko bermearen ordainketa egin izanaren frogagiria.



## ZARAUZKO UDALA

c) Egingo diren obrei buruzko dokumentazio teknikoa eta garatuko den jardueraren justifikazioa.

- Egingo diren obrak deskribatzeko memoria
- Aurrekontua
- Salmenta-postuaren oinplanoa eta sekzioaren planoak.
- Jarduerari dagokion fitxa, IV. eranskin gisa erantsita doan ereduaren arabera.

Aurreko dokumentazioa bete ondoren, Udalak esleipena erabakiko du

Aipatutako dokumentazioa hamabost eguneko epean aurkezten ez badu, bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da. Ondorioz, esleipena baliogabetzat joko da, eta beste esleipen bat egingo da.

Era berean, jarduerari ekin aurretik, V. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du, salmenta-postuaren erabilera baimentzeko (irekitzekoa).

### **Udal tasen ordainketa**

Emakidaren titularrak hilerok ordaindu beharko ditu Ordenantza Fiskaletan bere salmenta-postuarentzat finkatutako udal eskubide eta tasak.

### **Salmenta-postuen eskualdaezineko izaera**

Salmenta-postuak ezingo dira besteren esku utzi, ez eta eskualdatu ere, eskualdaezinak direlako. Bakarbakarrik, Udal Ordenantzaren 15. artikuluan aurreikusitako kasuetan subrogatu ahal izango dira.

### **Emakidaren amaiera**

Emakida ondorengo arrazoiengatik amaitu edo iraungiko da:

- a) Emakidaren legezko epea amaitzea.
- b) Titularrak idatziz eta espresuki uko egitea, eta Udalak ukoa onartzea.
- c) Udal baimenik gabe edonolako eskualdatze, subrogazio edo errentamendu egitea.
- d) Xedapen tekniko-sanitarioetan edo salmenta-postuen garbitasun eta higieneari buruzko jarraibide edo aginduetan arau-hauste oso larriak egitea.
- e) Udalari ordaindu beharreko tasetan hiru ordainagiritik gora ordaindu gabe izatea.
- f) Higiezinaren egiturari eragingo dioten lanak egitea, horretarako baimenik izan gabe.
- g) Pertsona juridikoaren kideen artean izandako edozein aldaketaren berri Udalari ez ematea, gertatzen denetik hilabeteko epean, edo elkartea desegin dela ere ez jakinaraztea.
- h) Titularraren porrot aitortzea, ebazpen judizial irmo bidez emandakoa.
- i) Interes publikoaren ondorioz sortutako arrazoiak, baita emandako epea bukatu aurretikoak ere



## ZARAUZKO UDALA

- j) Ordenantza honetako 13, 14 eta 15. artikuluetan baimena lortzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
- k) Ordenantza honetan deskribatutako arau-hauste oso larriak egitea (aurrez zehapen-espeditentea izapidetuko da).

Edozein arrazoiren ondorioz emakida iraungi edo amaitzen bada, titularrak salmenta-postua libre eta hutsik utziko du Udalaren esku; hori egiten ez badu, Udalak bere kasa erabakiko du botatzea, administrazio-bidea erabilia.

Emakidaren epea amaitutakoan, salmenta-postua eta bertan egindako hobekuntzak Udalari itzuliko zaizkio.

### **Emakidaren eskubide eta betebeharrak**

Emakidak ondorengo eskubideak ematen dizkio titularrari:

- a) Emakidaren xede diren jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu baketsua egitea.
- b) Udal Administrazioak, edo egon badago zerbitzu orokorren emakidadunik, batak edo besteak Merkatuko zerbitzu orokorrak egoera onean mantenduko dituzte.
- c) Udal Administrazioak, edo egon badago zerbitzu orokorren emakidadunik, batak edo besteak entzun eta arretaz hartuko dituzte salmenta-postuaren emakidadunak izan ditzakeen erreklamazio, eskaera eta iradokizunak.

Emakida dela-eta, titularrak ondorengo betebeharrak izango ditu:

- a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egongo da (JAZ).
- b) Erabilera baimentzen duen tituluaren jabe izango da.
- c) Salmenta-postuak eta biltegiak soilik salgaiak saltzeko edo bere negozioko gauzak biltzeko erabiliko ditu.
- d) Erabilitako salmenta-postuak, obrak eta instalazioak egoera onean mantenduko ditu.
- e) Jarritako orduetan etenik gabe saltzen arituko da, egoki eta arretaz.
- f) Norbere garbitasuna ahalik eta gehien zaindu eta laneko arropa berezia eta garbi-garbia erabilko du.
- g) Janari erabiltzailearen txartela edukiko du, baldin egiten duen jarduerarako beharrezkoa bada.
- h) Merkatua garbitu, kontserbatu eta zaintzen lagunduko du.
- i) Tokatzen zaizkion kanon eta gainerako exakzioak ordainduko ditu.
- j) Titularrak berak, bere familiartekoen edo mendekoen Merkatuko instalazioetan edo eraikinean eragindako kalte eta galerak ordainduko ditu.
- k) Udalak eskatutako datuak emango ditu.



## ZARAUZKO UDALA

- l) Udal zergak eta exakzioak ordaindu dituela justifikatuko du, eskatzen zaion bakoitzean.
- m) Merkatuaren funtzionamendu onerako Alkatetzak ematen dituen agindu eta jarraibideak ontzat hartu eta beteko ditu.
- n) Ikuskatzaitza sanitariotik jasotako neurriak ontzat hartu eta beteko ditu, bai eta Udalak jarritako neurri zuzentzaileak ere.
- o) Salmenta-postura sartzan utziko du mantentze-lanak, ikuskapenak edo aberien konponketak egin ahal izateko, baldin bere postuaren sabaian badaude instalazio komunak edo beste postuetako partikularrak.

### **Arau-haustek eta zehapenak**

Kontzesiodunak edo salmenta-postuan lanean diharduten mendekoek egindako arau-haustek zigortu egingo dira Udal Ordenantzaren 42. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

### **Zarauzko Udal Merkatua arautzeko Ordenantza**

Lehiaketaren esleipenetik sortzen diren eskubide eta betebeharrak guztiak, jada aipatutako Udal Merkatua arautzeko Ordenantzaren xedatutakoaren arabera arautuko dira (testu osoa 2015eko urtarrilaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean -15 zk.- argitaratu zen). Esleipendunak ordenantza hori ezagutu eta zehatz-mehatz betetzeko obligazio saihestezina dauka.

Esleipendunak bere betebeharrak ez betetzeak emakida galtzea ekar dezake, aurrez espedientea izapidetu ondoren.

### **Esleipenen indarraldiaren hasiera**

Beharrezko arrazoiengatik, deialdi honen ondorioz sortzen diren esleipenak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean. Hori guztia, behin behineko esleipenak egin daitezkeen kalterik gabe.

### **Aplikatu beharreko araudia**

Baldintza-agirietan bertan ezarri ez den gainerakoan, honako hauek xedatutakoa bete beharko da:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen;
- 781/1986 Legegintzako Errege-dekretua, apirilaren 18koa;
- 1372/1986 Errege-dekretua, ekainaren 13koa, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua
- Zarauzko Udal Merkatua arautzeko Ordenantza

Zarautzen, 2020ko irailaren 22an.



ZARAUZKO UDALA

## I. ERANSKINA

### PROPOSAMEN EREDUA

Lizitatzaillearen datuak:

Izena:.....

Adinez nagusia / NAN:.....

Helbidea: .....

Ordez kariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)

Izena:.....

Adinez nagusia / NAN:.....

Helbidea: .....

Zarauzko Udal Merkatuan hutsik dauden salmenta-postuak esleitzeko lehiaketa arautuko duen baldintza-agirietan jasota dauden baldintza guztiak betetzen ditut; eta, horrenbestez, ondoko eskaintza aurkezten dut:

salmenta-postu zk:	
Kopurua: (salmenta-postu finko edo itxien kasuan)	
Jarduera: (esleipen-irizpideak)	

(Eguna eta sinadura)



ZARAUZKO UDALA

## II. ERANSKINA

### ERANTZUKIZUNPEKO AITORPEN EREDUA

#### (Pertsona fisikoa denean)

Izena: .....

Adinez nagusia, NAN:.....

Helbidea: .....

Telefonoa: ..... Faxa / e-mail: .....

Aitortzen dut: Herri Administrazioarekin kontratatzeko ahalmena dudala, izan ere jarduteko gaitasun osoa izanik, 9/2017 Legeak 71. artikuluan ezarritako debekuetatik bat bera ere ez dudalako. Eta bereziki, berariaz aitortzen dut, laneko segurtasun eta osasun arloan arau-hauste oso larria egiteagatik, ez zaidala zehapen irmorik ezarri.

Era berean, aitortzen dut:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak kitatuak ditudala.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela zerga horretako matrikulan bajarik hartu.

(Lekua, eguna eta sinadura)

---

#### (Sozietate edo pertsona juridikoa denean)

Izena: .....

Adinez nagusia, NAN:.....

Helbidea: .....

Ondorengoaren ordezkotzan:

Izena: .....

IFZ: ..... Egoitza soziala: .....

Telefonoa: ..... Faxa / e-mail: .....

Aitortzen dut, nik neuk nahiz ordezkatzeko dudana enpresak, Herri Administrazioarekin kontratatzeko ahalmena dugula, izan ere jarduteko gaitasun osoa izanik, 9/2017 Legeak 71. artikuluan ezarritako debekuetatik bat bera ere ez dugulako. Eta bereziki, berariaz aitortzen dut, laneko segurtasun eta osasun arloan arau-hauste oso larria egiteagatik, ez zaigula zehapen irmorik ezarri.

Era berean, aitortzen dut:

- Indarrean dauden lege xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak beteta dituela.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela zerga horretako matrikulan bajarik hartu.

(Lekua, eguna eta sinadura)





ZARAUZKO UDALA

### III. ERANSKINA

#### ERANTZUKIZUNPEKO AITORPEN EREDUA: ZARAUZKO UDALEKO MERKATUKO SALMENTA-POSTUEN TITULARTASUNARI BURUZ

Izena:.....  
Adinez nagusia , NAN: .....  
Helbidea: .....  
Telefonoa: .....  
Faxa / e-mail: .....

AITORTZEN DUT:

Ez naizela Zarauzko Merkatuko ez salmenta-postu itxiren ez postu irekiren titular, eta ez dudala inolako sozietate titularretan parte hartzen ere.

(Lekua, eguna eta sinadura)



ZARAUZKO UDALA

#### IV. ERANSKINA

### JARDUERARI BURUZKO DATUAK DATOS SOBRE EL EJERCICIO DE LA ACTIVIDAD

1.- **Jarduera / Actividad:**

2.- **Titularren datuak / Datos del titular:**

Izena / Nombre:
Telefonoa / Teléfono:

3.- **Ekoizte-prozesuaren azalpena:**

Jarduera orokorraren funtzionamendua. (Adib. lehengaiak hartu, biltegitatu, zatikatu, ontzikitatu... kasu bakoitzean dagokionaren arabera)

**Descripción del proceso productivo:** Descripción del funcionamiento de la actividad general. (Ej. Recepción de la materia prima, almacenamiento, troceado, envasado... según corresponda en cada caso)

4.- **Zenbat pertsona arituko dira jardueran?**

*Número de personas a trabajar en la actividad:*

5.- **Makinak eta instalazioak.** Aurreikusitako makina eta instalazioen zerrenda (Adib.: janaria txikitzeko makina, ebakigailua, pisua, hotz-ganbera, hozteko mostradorea...). Makinaren fitxa teknikoaren kopia aurkeztuko da.



## ZARAUZKO UDALA

**Maquinaria e instalaciones.** *Relación de maquinaria e instalaciones previstas (P.ej.: Picadora, cortadora, pesa, cámara frigorífica, mostrador refrigerado,...). Se proporcionará copia de la ficha técnica de la máquina.*

Makina edo instalazioa <i>Maquina o instalación</i>	Marka eta modeloa <i>Marca y Modelo</i>	Potentzia (ZP o kW) <i>Potencia (CV o kW)</i>

Oharra: zaraten igortze mailak kontuan hartuko dira, udal ordenantzak betetzeko.

*Nota: Se tendrán en cuenta los niveles de emisión de ruidos para el cumplimiento de las Ordenanzas Municipales.*

**6.- Erregaiak.** (Adib.: gasa, gasolioa...)  
**Combustibles.** (P. ej.: Gas, gasóleo...)

	Bai / Si
	Ez / No

Mota <i>Clase</i>	Biltegitzeko sistema <i>Sistema almacenamiento</i>	Gehienez biltegitza daitekeena <i>Máximo almacenable</i>	Aurreikusitako urteko kontsumoa <i>Consumo anual previsto</i>

**7.- Sortutako hondakinen zenbaketa:**  
**Cuantificación de residuos generados:**



## ZARAUZKO UDALA

Mota (Adib.: Organikoa, kartoia...) Clase (P. ej.: Orgánico, cartón...)	Egunean sortutako kopurua (Adib.: m <sup>3</sup> , zakarrontzi, edukiontzi...) Cantidad generada por día (P. ej.: m <sup>3</sup> , cubos, contenedores...)

**8.- Postua lekualdatzea:** Adieraz ezazue nola pentsatu duzuen postua lekualdatu eta egokitzea: titularrak berak egingo duen ala enpresa espezializatu bat kontratatuko duzuen, eta lekualdatzeko ustez behar duzuen denbora.

*Traslado del puesto:* Indicar como se pretende realizar el traslado y acondicionamiento del puesto correspondiente, si se pretende realizar por el propio titular o si contratará una empresa especializada y el plazo que considera necesario para dicho traslado.

Nork egingo duen: A realizar por:		Titularra / Titular:
		Titularrak kontratatutako enpresak. Izena: Empresa contratada por el titular. Nombre:
Ustezko epea: Plazo estimado:		

**9.- Banaketa-krokisa - postuaren deskribapena:** Adieraz ezazue non jarri nahi dituzuen aurreikusitako makinak eta instalazioak, bai eta horien neurriak ere.

*Croquis de distribución - descripción del puesto:* Señalar la ubicación pretendida para maquinaria e instalaciones previstas, así como dimensiones de las mismas.



ZARAUZKO UDALA

## V. ERANSKINA

### **SALMENTA-POSTUAREN ERABILERA BAIMENTZEKO (IREKITZEKO) AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Fatxadaren behin betiko argazkia
- Instalazio elektrikoaren buletina.
- Ikuskapen tekniko-sanitarioaren aldeko txostena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egina. (salmenta-postuak finkoak eta ez-finkoak)
- Jarduerak derrigorrezkoa baldin badu, hondakinak kudeatzeko kontratuen kopia. Hotz-ganberak, bitrina hozkailuak... martxan jartzeko baimenari